



# ÑAÑARRI RALLYSPRINTAREN BIDEA EZAGUTUZ

Larunbatean izango da Kilometroak 08ren aldeko rallysprinta; Xabier Ezenarro gidaro ohiak gidatuko du zero autoa >4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2008-04-22

VIURTEA 1.414.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Abdelfettah Louajari eta Aicha Bani azkarrenak, XXX. Herri Krosean

**LEITZA** Lehen leitzarrak Fernando Irazoki eta Garbiñe Hernandorena izan ziren, herenegungo lasterketan

**PARTE-HARTZEA** 280 korrikalari izan ziren; «beste urteetan baino gutxiago», antolatzaileek esan bezala 7



Irazoki lehen leitzarra, Louajari eta Boulame, atzo sari banaketan. N. GARZIA



Jabier Madrazo, Jokin Bildarratz, Jose Ignacio Telletxea eta Jaime Permisan, atzo, hitzarmena sinatzen. I.T.

## «Oso gustura» antolatzaileak moda desfilearekin

**VILLABONA** Jendez bete zen Gurea aretoa; Oria elkartekoek «oso ondo» atera zela azaldu dute 5

## Amaroz paper fabrikan etxebizitzak egiteko hitzarmena sinatuta

**TOLOSA** 292 etxebizitza egingo dituzte, erdiak babestuak; paper fabrika Legorretako Paperaliaren instalazioetara pasako da 3

**hitza** info

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**

## Berdinketa izan behar bazuen ere, 0-1 galdu du Amurrioren aurka Tolosak

**Futbola** » Neskek zorte hobea izan zuten eta lau gol sartu ondoren, erraz irabazi zieten Zarauzko aurkariari.

### ERREDAKZIOA

Azken jardunaldietan Tolosarentzat gauzak onera zihoazela bazi-rudien ere, asteburu honetan beste ostiko bat jaso du eskualdeko taldeak. Larunbatean Berazubín jokatutako norgehiagokan Amurrio izan zuten aurkari.

0-1eko emaitzarekin galdu zuten urdinek. Honenbestez, gero eta zaigola dute hirugarren mailan mantentzea. Oso garrantzitsua baitzen Tolosakoentzat joan den asteburuko partida. Ongi jokatu bazuten ere, zorte txarra izan zuten Luluagaren mutilek, eta berdinketa izan behar zuena, galdutako partida batean bilakatu zen. Orain, bost jardunaldi geratzen zaizkie denboraldia amaitzeko. Oraindik ere sailkapeneko 18. postuan dira, jaitsieratik oso gertu. Gainera, puntu bakarraren alde ateratzen diete San Pedrokoek. Hurrengo partida Elgoibarren aurka izango du. Oraingoan kanpoan jokatuko dute. Elgoibar sailkapeneko 11. postuan dago Tolosatik 15 puntutara.

### Gainontzeko taldeak

Tolosako neskek zorte hobea izan zuten eta erraz irabazi zieten Zarautzekoek. Etxean jokatutako norgehiagokan 4-0eko emaitza bikaina erdietsi zuten. Partida honen ostean, sailkapeneko hirugarren postuan dira. Beraien aurretik daude Intxaurdikoak, 12 puntutara eta BTL-Skoak, bostetara.

Hurrengo partida Gipuzkoako hiriburuan izango dute, Añorga B baitute aurkari.

## Tolosako Udala

### IRAGARKIA

Tolosako Udaltzat, 2008ko apirilaren 16an egindako bilera, hasierako onepena eman zion Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko 1.12 "Amaroz Papelera" eremu Hirigintzako Egikaritze Hitzarmenaren proposamenari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea 20 egun egongo da jendaurrean jarrita. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesatutako daudenek egokituz jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaletiko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkatetxeko kideak zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epeldiaren barruan.

Tolosan, 2008ko apirilaren 17an.

ALKATEA.

# Oraingoan bai, garaipena etxeratu dute Tolosa Aralar taldekoek, Donostiakoan

**Saskibaloia** » Hiriburukoek kontra 61-75eko emaitzarekin irabazi zuten; hurrengo aurkaria Ocaso Berrio Otxoa izango dute.

### ERREDAKZIOA

Pasa den asteko «hanka sartzea» konpondu zuten tolosarrek bizia ematen dien garaipena lortuz Donostian eta hiriburukoak egoera zailean utziz.

Ez ziren egoerarik onenean agertu Tolosa Aralar-eko mutilak pasa den larunbatean Donostian jokatu zen partidara. Izan ere, Kikeren ohiko bajaz gain, Martiak ere oraindik ez du alta jaso eta ostiraleko entrenamendua hasterako Josebak orkatila bihurritu zuen. Hiru baja hauek ahalik eta gutxien nabarmendu zitezten, Jimyk Jon Azaldegi juniorra deitu zuen lehen taldearekin bidaiatzeko. Bidaiatu bai baina ez zuen jokatzeko aukerarik izan.

Etxeko taldeak ere bazituen pare bat baja garrantzitsu eta hasieratik ikusi zen hiriburukoek ezingo zutela erritmo altuan aritu partida osoan zehar. Horregatik, azkar jokatzeko agindua zuten tolosarrek, gehiegi arriskatu gabe.

Partida hasieran kanpotarrak aurreratu ziren markagailuan, 2-6 eta 10-15, lehen aldeak lortzeko asmoz. Dena den, laurdenaren amaierara berdinketarekin iritsi zuten (19-19). Bigarren laurdenean, berriz, zenbait kontraeraso baliatuz eta Eneko lortu zituen hirurokoi esker (11 puntu laurdenean), aldeak nabarmen zabaltzea lortu zen, zail utziz etxekoek markagailuari buelta ematea (30-44 atsedendaldian).

Atsedendalditik bueltan, berdinarraitu zuen partidak, aldeak gero eta zabalago izanez, 20 puntuko alde lortzera iritsiz (36-56). Une honetan ordea, tolosarren saskiko zuloa itxi egin zen eta 14-0ko partzial batekin 6 puntura gerturatu ziren donostiarrak hirugarren

laurdenaren amaieran (50-56). Azken laurdenera beste ideia batekin irten ziren urdinak. Hain garrantzitsua zen garaipenari ezin zitzaion alde egiten utzi, eta laurden hasiera on bati esker (2-15-eko partzial batekin) 52-71 aurreratu ziren markagailuan partida erabaki utziz hiru minuturen faltan.

Hemendik partida amaierara batzuen eta besteen saskiratzeekin iritsi ziren (61-75), izugarriko balioa duen garaipena lortuz. Emaitza honekin, donostiarraren aurka jokatutako bi partidak irabaziak dituzte eta hori oso mesedegarria da sailkapena hain berdinduta dagoela ikusirik.

Etxetik kanpo lortutako garaipen hau ordea, etxean lortutakoarekin uzartu behar da eta horretarako datorren larunbatean Eskolapioetako kiroldegian 18:00etan jokatuko den partidaren garaile izan behar dute nola edo hala. Aurkaria sailkapeneko azken postuan dagoen Ocaso Berrio-Otxoa taldea izango da.

## Laburrak

### Zine-forumean 'The birds' izango da ikusgai etzi

**KULTURA** » Etzi, Zine Forumean *The birds* (Txoriak) filma izango da ikusgai. Ohikoa den bezala bi saio egongo dira. Lehendabizikoa 19:15ean izango da, eta bigarrena 21:45ean. Ondorengo da filmaren argumentua: Melanie Danielsek Match Brenner abokatua ezagutuko du San Franciscoko txori-denda batean, eta harekin lilurata geldituko da. Perikito pare bat oparitzeko asmoz, Bodega Bay herrixkara joango da emakumea. Han, baina, kaio batek eraso egingo dio. Pelikula hau, Psycho (Psikosia) film bezala, beldurrezko zinema puruaren generokoa da, zuzendari britainiarrek gutxitan jorratutako generokoa, hain zuzen.

### Sanjoanok direla eta, festa batzordearen bilera, gaur

**KULTURA** » San Joan jaiak gero eta gertuago dira. Hori dela eta, gaur arratsaldean jai batzordearen bilera izango da. Batzarra 19:00etan hasiko da eta ohikoa den bezala Tolosako Kultur Etxean izango da. Hala, dei berezia egiten diete Udalekoek bertako kideei saiora agertzeko.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbul.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



## Gipuzkoako taldekako liga jokatu da

**XAKEA** » Pasa den asteburuan Gipuzkoako taldekako ligak amaitu ziren. Tolosa eta Ibarroko xake elkarteek bi talderekin hartu dute parte, bata maila gorenean eta bestea hirugarrenean. Maila gorenean Sabino Etxeberria, Ramon Etxeberria, Xabier Mujika, Migelmari Baroja, Javier Baroja, Andres Bustamante eta Iñigo Mujikak jokatu dute. 9. postuan amaitu eta mailari eustea lortu dute. Datorren urtean, Tolosa-Ibarro

probintziako maila nagusian jarraituko du. Hirugarren mailakoan Iñaki Etxeberria, David Moreau, Jokin Mendia, Aimar Intxaurren, Joxe Mujika eta Oihana Etxenike aritu dira. Txapelketa bikaina burutu eta gero bigarren postua eskuratu eta mailaz igotzea lortu dute. Duela hiru urte hasi ziren jokatzeko, eta urteetik urtera gora egin eta gero, datorren denboraldian bigarren mailan jokatu dezaketela erakutsi dute. HITZA



Tapia, Madrazo, Bildarratz, Telletxea, Permisan, Unanue eta Lekuona, atzo, Tolosako udaletxean. I.T.

# 292 etxebizitza egingo dituzte, erdiak babestuak, Amaro paper fabrikaren

**Ekonomia** » Atzo sinatu zuten hirigintza hitzarmena erakundeen artean; 2010ean hasiko dira eraikitzen.

**INIGO TERRADILLOS**

Atzo sinatu zuten hirigintza hitzarmena Amaro paper fabrikak, Tolosako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Orubidek paper fabrika dagoen eremuan etxebizitzak egiteko, eta ondorioz, paper fabrikaren etorkizuna bermatzeko. Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Amaro paper fabrikako finantza zuzendaria eta administrazio kontseiluko kidea den Jaime Permisan, Arantxa Tapia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Ordenamendu diputatua, Eusko Jaurlaritzaren Teknologia eta Industria Garapenaren kontseilariordea den Jose Ignacio Telletxea eta Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Sailaren kontseilaria eta Orubide sozietateko burua izan ziren ekitaldian.

**Paper fabrikaren etorkizuna**  
Hitzarmen honek Amaro paper fabrikaren leku aldatzea ahalbidetuko du. Orubidek, Eusko Jaurla-

ritzaren Etxebizitza Sailaren sozietateak, lurzoruen kudeaketa sozietateak Amaro lantegiari erosiko dio gaur egun erabiltzen duen lur eremua, Amaro paper fabrikak Legorretako Paperalia eros dezan (ostegunean egingo dute Paperaliaren enkantea). Hala, Amaro paper fabrika Legorretan kokatuko da Paperaliak dituen instalazioetan. Leku aldaketa honek bide emango dio Amarozi ekoizpen handiagoko makina berriak erosteko eta enplegu osoari eustea gain, handitu ere egingo du, 15 postu berri sortuko dituztela aipatu baitute.

**Etxebizitza erdiak babestuak**  
Amaro paper fabrika lekuz aldatu ostean, 23.171 m<sup>2</sup>-ko espazioa gertatuko da libre, eta hor 292 etxebizitza eraikiko dituzte. Horietatik, erdiak, hau da, 146 babestuak izango dira (%30 babes ofizialekoak eta %20 tasatuak). Orubidek bere gain hartuko du behar diren hirigintza-argiriak prestatzeko ardua, eta urbanizazio obrak kontratatu eta exekutatzeko sustapen lana ere egingo du. Horretaz gain, Amaro zuzotik igarotzen den N-130 errepide zatiaren bilgarritasunahobetzeko, Orubidek biribilgune bat egiteko obrak finantzatzeko dituela ere hitzarmen du.

Eragiketa honetarako aurreikusi duten inbertsioa 39,76 milioi eurokoa da, lurzoru, urbanizazio eta eraikuntza-lanetarako. Egunerari dagokionez, berriz, 2008 eta 2009 urteak lurzoru erosteko eta hirigintza-argiriak prestatzeko izango dira, eta urbanizazio lanak 2010ean hasiko dituzte.

**«Erakundeen lana eskertu»**  
Jokin Bildarratz Tolosako alkateak atzoko ekitaldian azaldu zuen ez dela gehien gustatu zaionetakoa izan hitzarmen hau, «Tolosatik Amaro paper fabrika joatea ez baita gustukoa, baina urte eta erdi daramagu lanean lantegiko arduradunekin, eta irtenbide bakarra ikusten genuen, toki aldatetako lantegiaren jarraipena ahalbidetuko baitu». «Hitzarmen hau posible egiteko erakundeek izan duten inplikazioa» eskertu zuen Tolosako alkateak, «Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak eta Orubidek asko lagundu eta aholkatu digutela». Bildarratzek azaldu zuen hurrengo ohiko bilkuran behin-behineko plan orokorrean sartuko dutela proiektu hau.

Arantxa Tapia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Ordenamendu diputatuak azaldu zuen Foru Aldundiak hitzarmena ez duela sinatzen euren

**» ZENBAIT DATU**

- **Amaro paper fabrika.** Legorretako Paperalia dagoen lekura pasatuko dira, eta 8-9 hilabete inguru beharko dute jardunarekin hasiteko.
- **292 etxebizitza.** Paper fabrika dagoen lekuan 292 etxebizitza eraikiko dituzte. Erdiak babestuak: %30 babes ofizialekoak eta %20 tasatuak. 2010ean hasiko dira eraikitzen.
- **Inbertsioa.** Eragiketa honetarako aurreikusitako inbertsioa 39,76 milioi euroko da.

**Tolosan etxebizitza alorrean gauzatzeko beste jarduerak batzuk**

- **Andra Maria kalea.** 12 etxebizitza alokairu sozialekoak. Bukatu eta banatu dituzte.
- **Oria-Araxes.** 44 etxebizitza babes ofizialekoak saltzeko. Urte bukaeran amaituko dituzte obrak.
- **Oria-Araxes.** 16 etxebizitza alokairu sozialekoak, itunduak. Urte amaieran bukatuko dituzte obrak, eta Alokabidek erosiko ditu etxebizitza horiek alokairuan jartzeko.
- **Gorostidi-Voith.** 44 etxebizitza babes ofizialekoak, alokairuan,

eskumenekoa ez delako, baina konpromisoa hartzen dutela laguntza emateko. «Legorretara Amaro paper fabrika emateko egin beharreko egokitzapenak eginen dituzte; esaterako, Legorretako Paperalia dagoen zonaldean, ibaiarekin muga egiten duten eraikin zaharrenak eraitsiko ditugu, ibai bazterra pasealeku batekin hobetuz, GI-2131 errepidea ibaira hurbilduz eta aprobetxamendu osoa errepidearen alde batera batuz».

**Aukera baliatu beharra**  
Bestalde, Jaime Permisan Amaro paper fabrikako finantza zuzendaria eta administrazio kontseiluko kideak prozesua nola izan den azaldu zuen: «Paperaren merkaturia ez dago egoera onenean, eta planteamenduren bat egin beharra zegoen aurrera egiteko; hala, Legorretako aukera aztertu genuen eta aprobetxatu egin beharra zegoela ikusi genuen; gure asmoek aurrera egingo ez balute desegin egingo zen Legorretako Paperalia fabrika». Udala eta erakundeak eskertu nahi izan zituen Permisanek «aukera hau emateagatik». 8-9 hi-

sustapen pribatukoak. Proiektuan dago.

**Bizigune, Etxebizitza Hutsaren Programa**

■ **Kopurua.** 2005eko azaroaren 4tik 28 etxebizitza mobilizatuak.

**Erosketarako, birgaitzeko eta irisgarritasunerako laguntzak:**

- **Etxebizitza libre erabilia erosteko.** 272.489 euro. Eskaera kopurua: 53.
- **Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzak.** 861.481 euro. Eskaera kopurua: 1.051.
- **Area degradatuak biziberritzeko.** 1.086.240,70 euro 2002an; 12.982.2007an. Errotaren brimoldaketa eta inguruaren berrurbanizazioa, Kale Nagusiaren berrurbanizazioa. Hiri Antolamenduko Plan Berezia aldatzea, Errota erremuaren eta Zerkausiaren topografia lana (agiri hauen %20a). Letxu kalea, Leitzu kalea eta beste pasealeku batzuk berrurbanizatea.
- **Oztopo arkitektonikoak ezabatzeke.** 302.108 euro.

labete inguru beharko dituztela Amaro paper fabrika Legorretara eman eta bere jardunahasteko azaldu zuen Jaime Permisanek.

Jose Ignacio Telletxea Eusko Jaurlaritzaren Teknologia eta Industria Garapenaren kontseilariordeak, bere aldetik, erakundeen arteko ekintzen «adibide ona» dela atzo sinaturikoa adierazi zuen.

**Osagai soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa**

Javier Madrazo Orubide sozietateko buruak «hitzarmen handia dela eta lan handia» dagokela honen atzetan berretsi zuen. «Osagai ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa batzen ditu hitzarmen honek: batetik herrian tradizio handia duen enpresa baten etorkizuna bermatzen du; bestetik, 292 etxebizitza eraikiko dituzte bertan, eta horietatik erdiak izango dira babestuak, eta azkenik, paper fabrika dagoen lur saila txukundu eta bertan etxebizitzak ezezik parke handi bat eta espazio libreak ere egingo dira, ibai bazterrek zainduz eta errepidera dagoen tartea ezarri, legearekin bat etorri».

**H Hilberriak**

**JOSEBA ETXEBERRIA MITXELENA**



ATTONA:  
Zure izatearen islak gugan irauango du etorkizunean, Maite zattugu

**OIARTZUN**  
2008ko apirilaren 22a

**Zure bilobak, Unai, Ibai, Garazi eta Elchi**

**BIXENTA ALBISUURIA**  
(Inocencio Mendizabalaren alarguna)

-Goian bego-

Zuri eskerrak ikasi dugu baserria zertan datzan gaur falta arren segi nahi dugu oraintxe arteko martxan.

Zure bilobak: Izaskun, Oskarbi, Sonia, Gotzon, Espe, Axier, Garikoitz, Ainara, Larratiz, Iban, Ion, Aitzol, Oihana, Maialen, Harriet eta Aduar.

Hileta GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA FE parroki elizan gorpua bertan dela egingo da.

Hilbidea: Ansuñeta baserria.  
Oharra: gorpua etxean egingo da. Errosario santua 18:45ean errezatuko da elizan.



**ZALDIBIA**  
2008ko apirilaren 22a



**JOSEBA AROSTEGI ALKORTA**



Zuhaitz-adarretan haize zakkarraren hotsa; kanpoan, udaberri petral honetako hotza: gure barrenetan, samnaren izotza. Bakarrik zutaz oroitzeak, Joseba, epelzen digu zertxobait bihotza. Ez zaitugu ahaztuko!

**Koadrilako lagunak, koadrilakoak Zure lagunak, zure adiskideak**

**ZARAUTZEN**  
2008ko apirilaren 22an



# Autoak noiz iritsiko zain

**Kirolak** » I. Nañaari Rallysprintaren ibilbidea «oso polita» dela dio Xabier Ezenarro gidari ohiak. Puntu interesgarrienak azaldu ditu amezketarrak.

## IMANOL GARCIA

Larunbatean mugimendu handia izango da Alegiatik Amezetara, Oreidaninetik eta Abaltzisketatik zehar. Errepide horretan egingo da I. Nañaari Rallysprinta, Irurako Kilometroak 2008ren aldekoa. Espainiako txapelduna izandako Xabier Ezenarro rally gidari ohi amezketarra izango da zero autoa, hau da, lasterketa hasi aurretik ibilbidea probatuko duena. Ibilbidea «oso polita» dela dio. Berak azaldu ditu rally honen puntu interesgarrienetako batzuk.

Ibilbidea hiru zatitan banatuko daitekeela dio Ezenarrok. «Lehenengo partea Orendaingo bidegurutzerainokoa izango zen. Zabala da eta errepide honetakoa. Gero, bigarrenengo partean, Abaltzisketaraino, basoan sartzen zara. Irabazten duenak rallya hor irabaziko du. Zailena da eta hor erakutsi behar da. Abaltzisketatik behera, lehenengo partean bezala, nahiko garbia da».

## Tarte interesgarrienak

Alegiatik atera eta berehala 90 graduko bi bihurgune daude, ikusgarriak izan daitezkeenak. Larraspi-ko bihurgune zabala ere interesgarria da eta horren ondoren tarte

azkarra dator. Orendaingo bidegurutzea izan daiteke tarterik zailena gidarientzat. «Rasante bat dago bertan, hau da, autoak salto egin dezake», dio Ezenarrok, «eta gero bihurgune azkar bat dator». Zubeltzu baserriaren zuzenean abiadura handia hartuko dute autoek eta bihurgune arriskutsua dago bukaeran. Abaltzisketako sarreraren chicane bat izango dute gidariek. «Herri pasoa ikusgarria izango da», dio Ezenarrok. Amezetara bidean, ziztu bizian joango dira eta puntu delikatua Ipintza baserriko bihurgunea izango da.



1. Ibilbidearen hasieran dagoen 90 graduko bihurguneetako bat. 2. Larraspi baserriaren ingurunea, bihurgunearen ondoren. 3. Orendaingo bidegurutzea. 4. Zubeltzu baserriaren zuzenaren bukaerako bihurgunea. 5. Abaltzisketako sarreraren chicane. 6. Ipintza baserriko bihurgunea. 7. Xabier Ezenarro zero autoa gidaria izango da. I. GARCIA





Larunbatean egindako moda desfilearen une bat. ASIER IMAZ

## Moda desfilearekin «oso gustura» Oria elkartekoak

**Villabona** » Moda desfileak eskualdean sortutako ikusmina handia izan zen eta Gurea aretoa guztiz bete zen.

**IMANOL GARCIA**

Oria merkatarien elkarteko kideak «oso gustura» daude larunbatean Gurean egindako moda desfilearekin. «Dena oso ondo atera zen», gaineratu dute elkartetik. «Gure aldetik pena da jendea kanpoan gelditu zela. Denbora askoan egon

ziren zain, baina bete egin zen eta ezin izan ziren denak sartu».

Moda desfileak sortutako ikusmina handia izan zen, beraz. «Ez genuen uste hainbat jende etorriko zenik», azaldu dute Oriatik.

**«Lan handia»**

Lehenengo aldia izateko gustura gelditu dira Villabonako merkataria-riak. «Lan asko izan da ere», gaineratu dute. «Guztia antolatzea zaila izan da».

Oria merkatarien elkarteko kideak den Idoia Irastorzak atzo den-dara dozena bat lagun agertu zirela

azaldu du. «Desfilea oso ondo egon zela esatera etorri da». Izan ere, ekitaldiaren ondoren lunch bat banatu zen eta bertan ere ikusle izan zirenek «ez zutela horrelakorik espero» esan zuten, Oriatik zehaztu dutenez. Modeloak ere gustura aritu zirela gaineratu dute antolatuzaileek.

Anjel Alkain eta Mikel Pagadizabal aurkezle lanetan aritu ziren eta beraien lana «oso ondo» bete zutela aipatu dute. Bere aldetik, Kristina Aranzabek eta Leire Berazaluzek «deri girotu zuten» beraien musikarekin ekitaldia.



## Ordozgoiti eta Inza, txapeladun

**VILLABONA** » Behar-Zana kirol elkarteko Ilazki Ordozgoiti eta Ander Inza bikoteak Jubeniletako 3. mailan Gipuzkoako Udaberri Txapelketa irabazi dute Urnietako pilotalekuan. Aurkariak Irungo Kurpil-Kirolak elkarteko Ballesteros eta Ugarte izan ziren. Ligaxkako partidari 22-18ko emaitzarekin galdu bazuten ere, finalean erraz gailendu ziren. Partida hasi eta berehala zulo handia ireki zuten eta 16-2 ko aldeaz ere ipini ziren aurretik. Azkenean 22-9 irabazi zuten. HITZA

## Hizki-Marrazkiko sari banaketa, bihar

**ERREDAKZIOA**

Anoetako Udaleko Euskara eta Kultura departamentuek eta Anoetako Herri Ikastolak antolatzen duen Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketako sari-banaketa egingo dute bihar. 10:00etan Abraham Olano kiroldegian ipuin kontaketa izango dute ikasleek Irintzi taldearen eskutik, Zuk-zuk

jaunaren alfabetoa, Bernardo Atxagaren ipuinean oinarritua.

11:30ean sari-banaketa ekitaldia izango da Ikastolako sarreran: sariak jasotzeaz gain, kategoria bakoitzeko irabazleek ipuina irakurriko dute. Lehiaketa lau kategorietan banatu zuten, baina hirutan izan dira saridunak, laugarrenean ez baita saririk eman.

**hazi**  
nahi duten  
pertsonentzat

### Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Ikastaro guztiak bi orduko hiru saiotan egingo dira, asteartetan, asteazkenean eta ostegunetan, 19.00etatik 21.00etara.

**Donostialdea:** maiatzak 6, 7 eta 8  
Donostia: Lagartzi Kultur Etxea

**Tolosalde:** maiatzak 13, 14 eta 15  
Tolosa: Antonio M. Labaien Kultur Etxea

**Oarsoalde:** maiatzak 20, 21 eta 22  
Errenteria: Reina Aretoa

**Buruntzaldea:** maiatzak 27, 28 eta 29  
Hernani: Bizen Kultur Etxea

**Bidasoa-Txingudi:** ekainak 3, 4 eta 5  
Irui: Anasía Kultur Zentroa

**Debagoiena:** ekainak 10, 11 eta 12  
Aizoa: Kulturate Kultur Etxea

**Goierri:** maiatzak 6, 7 eta 8  
Ordizia: Barrena Kultur Etxea

**Urola Garaia:** maiatzak 13, 14 eta 15  
Zumarraga: Zela Añel Kultur Etxea

**Urola Erdia:** maiatzak 20, 21 eta 22  
Azpeltia: Sindikatu Zaharretako Aretoa

**Urola Kosta:** maiatzak 27, 28 eta 29  
Zasuta: Sanz Enea Kultur Etxea

**Debabarrena:** ekainak 3, 4 eta 5  
Eibar: Partidea Kultur Etxea

**Donostialdea:** ekainak 10, 11 eta 12  
Donostia: Udak Liburutegi Ekitaldi Aretoa

### Izena emateko

Ikastaroak doan dira, eta izena emateko Baketik-ekin harremanetan jartzera baino ez duzu ondorengo bide hauek erabili.

943 25 10 05 partehartu@baketik.org www.baketik.org

Parte hartzen

persona eta gizarte moduan hazten gara

Laguntza

Arretak

Kolaboratzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

kultura *participa* berria  
Programa de participación cultural de la UCA y de la UCA



Larunbatean herritarrek elkarretaratzera egin zuten Ibarako plazan 'Herriko hezkuntz proiektuaren alde'. ASIER IMAZ

## Udal Haur Eskolaren eta Partzuergoaren arteko «ezberdintasunak»

**Ibarra** » Uzturpe Ikastolak eta herriko hainbat elkartetek gaur 17:00etan herriko plazan elkartzeko deialdia egin dute.

### ASIER IMAZ

Ibarako Uzturpe Ikastolak Udal Haur Eskolaren kudeaketan oinarritutako konparaketa plazaratu du «gurasoek eskatuta».

Alderaketa honetan, «orain arteko funtzionamenduaren eta Partzuergoaren arteko ezberdintasunak» ikus daitezke kudeaketa alorrean.

### 9 puntuko azterketa

Konparaketa 9 puntu aztertzen ditu Uzturpe Ikastolak eta lehen atalean Udal Haur Eskolaren «gertuko» kudeaketa aipatzen

dute, «Partzuergoaren hurrunko» azpimarratuz, «Eibarren zentralizatu».

Bigarren puntuan prezioen arteko ezberdintasuna aipatzen dute: «orain arte 72,87 euro ordaindu da goizez, beste horrenbeste arratsalde. Partzuergoaren 5 ordu baino gutxiagoko zerbitzu 135 euro kostatzen da. Hortik gora 180 euro».

Haurren plaza kopurua ere aztertzen du Uzturpek kaleratutako konparaketak. «Gaur egun eskara eta ordutegiaren arabera egokituak baldin badaude, Partzuergoaren plaza mugatuak egongo dira». Egutegiaren arloan, Uzturperen esanetan, «Udal Haur Eskolan irailaren letik hasten da, Eguberrietan, Pazko Astearen eta uztaile osoan irekita dagoelarik. Partzuergoaren berriz iraileko lehen egunetik hasten da zerbitzua eskain-

tzen, Pazko astea eta uztaile osoa itxirik egoten delarik».

Hezkuntza proiektuaren inguruan, bertako Hezkuntz proiektua EAEkoarekin alderatzen da. «Orain arte 0-3 zikloa osorik eskaini da, 0-6 etapa bateratua eta 0-16 urte bitarteko proiektu integratua txertatua. Partzuergoaren berriz 0-3 etapa hautsi egiten da, 2 urteko gela proiektutik kanpo gertatzen da eta 0-16 proiektua desagertu egiten da».

### Gaur 17:00etarako deialdia

Gaur 18:00etan Ibarako udal-txean ohiko bilkura burutuko du Udaltzuzak. Bertan Haur Eskolaren etorkizuna bozkatuko dute EAJ, EA, PSE eta EB alderdietako hautetsiek. Honen aurrean, Uzturpe Ikastolak eta herriko hainbat elkartetek 17:00etan herriko plazan biltzeko deialdia luzatu dute.



Jon Rekondo leitzarra eta Aitzol Atutxaren arteko lehia Amazabalen. N. GAZTIA

## Urrezko Aizkolarien Txapelketan Rekondo final-zortzirenetara

**Leitza** » Jon Rekondok Xabier Orbegozo, 'Arria V'.aren aurka jokatu du, Aitzol Atutxa garaitu ostean.

### A. IMAZ

Urrezko Aizkolarien Txapelketaren lehia jokatu zen iragan larunbatean Leitza. Herriko semeak, Jon Rekondok, garaipena lortu zuen Aitzol Atutxa bizkaitarraren aurka. Honen ondorioz, final-zortzirenetako txartela lortu zuen Amazabal pilotalekuan.

### 'Arria V.a' final zortzirenetan

Larunbatean Rekondo eta Atutxaz gain Xabier Orbegozo, 'Arria V.a', eta Jesus Mari Lasa lehiatu ziren elite mailan. 18 urtez behoko txapelketan berriz, Ruben Saralegi leitzarra eta Ander Erasun aritu zi-

ren nor baino nor. Ander Erasun nagusitu zen gazteen artean, etorkizun bikaina duela erakutsiz. Elite mailako bigarren demari dago-kionez, 'Arria V.a' nagusitu zitzaion Lasari. Errezilgo (Gipuzkoa) aizkolariak Jon Rekondoren aurka jokatu beharko du hurrengo norgehiagoka. Proba amaitzean leitzarra arerio gogorra izango dela onartu zuen Xabier Orbegozok: «Rekondo oso mutil bizkorra da, lehia gogorra izango dugula uste dut».

Jon Rekondok bere aldetik, Atutxaren aurkako lehia aztertu zuen: «Entrenamenduetan oso gaizki ibili naiz eta denbora asko egon nahiz probarik jokatu gabe. Hala eta guztiz ere ilusio pixka batekin etorri naiz. Lehen probetan nahiko ongi ibili naiz eta amaiera aldean Atutxaren mailan egotea lortu dut. Bera oso gogorra da, eta proba hauetan oso arriskutsua da».

## Laburrak

### Bengoetxea VI.ak 22-18 irabazi zion Leizari

**LEITZA** • Oinatz Bengoetxeak 22-18 irabazi zion herenegun Leizari Eibarko (Gipuzkoa) Astelena pilotalekuan. Partida gogorra jakatu zuten bi pilotariak eta atzetik hasi arren, amaieran leitzarra nagusitu zen. Bengoetxea VI.ak Haimar Olaizolaren aurka jokatu beharko du hurrengo partida.

### Gaur Lur Korta ipuin kontalariaren emanaldia

**IBARRA** • Udal Liburutegiak Lur Korta ipuin kontalariaren saioa antolatuko du gaur 17:30ean Benito Izagirre kultur etxean. *Ipuinekin jolasen* saioa 4-10 urteko haurrentzat zuzendua egongo da. Liburuarren egunarekin lotutako ekitaldia izango da gaurkoa.

### Uzturpe Ikastolak etzirako hitzaldia antolatu du

**IBARRA** • Uzturpe Ikastolak hitzaldia antolatu du etzi 17:00etan Kultur Etxean. *2-6 urteko haurrak eta autoritatea* izeneko hitzaldian *Mugak nola jarri* gaiari buruz arituko da Izar Arregi psikologo klinikoa. Hitzaldiak dirauen bitartean ludoteka zerbitzua egongo da bi urtetik gorako haurrentzat.

### Lauburu KEK etxean partida galdu zuen

**IBARRA** • Lauburu KEK 4-5 galdu zuen Burlata taldearen aurka iragan asteburuan etxean jokaturako partida. Ibarako taldea partida guztian zehar aurretik joan baldin bazen ere markagailuan, azken unean nafarrek garaipena lortu zuten.

## Gutunak

### Noa gora/Noa behera

Egun hauetan agian gehiegi idatzi da pertsonai honen inguruan. Demagogia asko: «ezin da laburtu ho-

nelako gaia»; «ezin da sinplifikatu» eta bitartean eskal talde batzuk (herri zapalduak) Noa-rekin (herri zapaltzailea) parekatu dituzte. Baita AVTkoak (herri zapal-

**@ Eztatidak.** Ibarako Udal Haur Eskola: zazpi urtetan Uzturpe Ikastolak kudeatu du. Udalak orain, kontsorzioan sartzea erabaki du. 900 sinadura bildu dituzte erabaki honen aurka herritarren artean. Zein da zure iritzia? Sartu gure web orrian Eztatidak atalean eta eman zure iritzia. Horretaz gain jendeak idatzitako irakutzeko aukera eskaintzen dizu gure web orrian: [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona berrag. 685 22 70 58.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai. Egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.





Aurtengo krosean korrika egitera animatu diren artean, leitzarrak. 47 senior eta beterrano ateratzen dira. NAJARA GARZIA

## Louajari eta Bani nagusitu dira XXX. Herri Krosean

**Leitza** » Lehen leitzarrak Fernando Irazoki eta Garbiñe Hernandorena izan ziren: guztira 280 korrikalari inguru izan ziren.

### ERREDAKZIOA

Abdelfettah Louajari eta Aicha Bani izan ziren igandeko Leitzako XXX. Kros herrikoieko irabazleak beterranoen mailan. Guztira, 280 korrikalari inguru izan ziren. Esan beharra dago, senior eta beterranoen mailak kontuan hartuta, Tolosaldeko eta Leitzaldeko 59 korrikalari izan zirela, eta Leitzakoak, 47. Hala ere, antolatzaileen esanetan, «beste urtetan baino parte-hartzaile gutxiago izan da».

Louajari 10 kilometroak 32 minutu eta 22 segundotan egin zituen. Emakumeen artean, berriz, Banik 5 kilometroak 17 minutu eta 48 segundotan. Helmugaratu ziren lehenengo leitzarrak Fernando Irazoki (saillkapen nagusian harrigarrena) eta Garbiñe Hernandorena.

dorena izan ziren (zortzigarren, saillkapen orokorrean).

Igandeko korrikalari azkarrenak marokoarrak izan ziren, korrikalari profesionalak dira. Louajari lasterketaren ondoren adierazi bezala, «lasterketa nahiko erraza izan da, baina luzea ere bai. Hartutako ermittoa ona izan da».

Aicha Bani korrikalaria maila gorenekoa da. Nazioarteko lasterketatan hartzen du parte eta munduko txapelketan laugarrena da. Banik Louajariaren adierazpenekin bat egin zuen.

Ez zuen berdina esan Fernando Irazokik, helmugaratu zen lehen leitzarrak: «Asko sufritu nuen. Korrika askotan egiten dut baina ez dut erraz egin».

### Maila guztietako korrikalariak

Lehenengo lasterkariak benjaminak izan ziren, 10:15ean baitzuten zita. Krosa bukatu, berriz, 12:30 aldera bukatu zen, senior eta beterranoak iritsi zirenean, hain zuzen. Tartean alebinak, infantilak, juniorrak eta kadeteak ere aritu ziren.

Xabier Zabalo alkateak eta krosa antolatzen duten Aurrera klubeko kideek banatu zituzten sariak.

Sariak emateko garaian arazo batzuk izan ziren epailearekin, hankasartzeak, hain zuzen, baina korrikalari bakoitzak azkenean zegokion saria jaso zuen.

### Aitor Zabaletaren logotipoa

Aurtengo Leitzako krosak 30 urte bete ditu, eta jakina den bezala, berezia izan da, Aurrera klubak krosaren logotipoa aldatu egin duela besteak beste. Horretarako lehiketa bat antolatu zuen, logotipo berriaren bila: zazpi herritarrek proposamenak egin zituzten, eta bat bakarrik izan daitekeelako aukeratu, finalera iritsi ziren proposamenak ere plazan ikusgai jarri zituzten. Aitor Zabaletak egindako marrazkia aukeratu zuten, eta hura sarritua izan zen.

Bestalde, Aurrerak eskerrak eman nahi izan ditu, «herritarren parte-hartzearengatik, eta antolatzeko garaian asko lagundu dutelako».

## Miguel Soroa zenaren lagunarteko ilunabarra etzi ospatuko dute

### N. URBIZU

Miguel Soroa pilotariari, lagun askokoa izaki, merezitako omenaldia antolatu diote bere lagunartekoak. Etxeizango da omenaldia, eta lagunek esan bezala, «berak egingo zuen moduan egingo dugu: Miguel Soroa zenaren lagunarteko ilunabarra», hain zuzen.

Lagunarteko ilunabarra eskaini nahi izan diote hurbileko lagunek. «Soroak egingo lukeen modura egin nahi izan dugu», Letamendiak aipatu bezala. Meza eta afaria izango dira ekitaldi garrantzitsuenak, baina bertan parte hartuko dutenak izango dira benetako dizdirak. «Partzuarrak», Letamen-

diaren ahotan, «pilotarekin lotutakoak eta Soroaren ingurukoak izango dira»: Zarauzko olerkariak, Jose Arzelus organo jotzailea, Egaña eta Euskitze, Garikoitz Mendizabal eta Iñaki Letamendia txistulariak eta Joxe Luis Etxeberria, Xafre trikitilaria.

Frontonen egingo duten afarian izena emateko 943 65 29 41 telefono zenbakira deitu behar da lehen bailehen. Meza, berriz, 19:30ean ospatuko dute Jesuitetako kaperan. Afalondan kantua, txistulariak, bertsoak, soinua... izango dira.

Babesleak opil okindegia eta Fronton jatetxea dira: antolatzaileak, berriz, Soroaren lagunak.

## Leitzako Aurrerako pilotako emaitzak

### ERREDAKZIOA

Leitzakoak Nafar Jokoetan aritu dira asteburuan, eta Amazabal frontoian lau partida jokatu zituzten: bat irabazi zuten, Goikoetxe-Galartza bikoteak, hain zuzen. Kanpoan jokatu eta antolatu izan dute zorte handiagoa eta zortzi partidatik 5 irabazi dituzte Aurrerako bikoteak.

GRAVN torneoan, berriz, paleetan Iera Agirre eta Maite Urtaşun

dabilta eta emaitza ona lortu dute 30-26 irabaziz. Aste honetan Araba zuten arerio. Jaunarena jubenilak 22-6 irabazi zuten eskuz bana-ka, Arabaren aurka, Ogetan.

Lizarrako Txapelketan, berriz, beste garaipen bat lortu dute Lizarran: Onsalo-Gil infantilek 18-4 irabazi zuten. Espainiako Txapelketan Sagastibelza-Galartza bikoteak ez du zorte bera izan, 10-22 galduta.

## Laburrak

### Israelen aurkako boikotaz bihar ariko dira hitzaldian

**TOLOSA** » Noa abeslari israeldarrek Tolosa jo zuten duela gutxi. Honen gainean sortutako polemika ikusirik, gaiaren inguruko hitzaldia antolatu dute biharko, 19:30ean Tolosako Kultur Etxeko goiko gelaletan. Bertan, Israelen aurkako boikot eskaerak zertan datzan azalduko dute.

### V. Hitz Pilota Lehiaketako hasierako jardunaldia, gaur

**BIDEGOIAN** » V. Hitz Pilota Txapelketaren lehenengo jardunaldia jokatuko da gaur. Guztira sei partida izango dira Bidaniako frontoian kadete mailan, lau t'erdian, 19:00etan hasita. Asteburuan gaitontzeko mailetako pilotariak ariko dira eskualdeko hainbat frontoietan.

### » SAILKAPENA

Beteranoak	
<b>Gizonetakoak.</b>	
Gonzalo Sukunza	34:06
Antonio Casado	34:33
David Markaida	35:02
<b>Emakumezakoak.</b>	
Maika Ariztegi	19:53
Arantxa Aldalur	20:21
Elena Calvillo	20:21
<b>Seniorrak</b>	
<b>Gizonetakoak.</b>	
Abdelfettah Louajari	32:22
Jaquad Boulame	32:38
Raul Amatriain	33:55
<b>Emakumezakoak.</b>	
Aicha Bani	17:48

Marta Muñoz	19:00
Idoia Labaien	20:21
<b>Eskualdeko azkarrenak</b>	
<b>Gizonetakoak.</b>	
Fernando Irazoki (Leitza)	35:59
Iraitz Uriarte (Leitza)	36:07
Patxi Esnaola (Tolosa)	37:15
<b>Emakumezakoak.</b>	
Idoia Labaien (Tolosa)	20:21
G. Hernandorena (Leitza)	20:21
Ane Egizabal (Leitza)	20:21
<b>Benjaminak, herritarrek</b>	
1. Koldo Hernandorena	
2. Joanes Ilarregi	
<b>Juniorrak</b>	
1. Izar Ugartemendia	
2. Leire Erbiti	

<b>Infantilak</b>	
1. Mikel Sagastibelza Lasarte	
2. Mikel Sagastibelza Egues	
1. Ane Intxausti	
2. Arantzazu Rodas	
<b>Alebinak</b>	
1. Martxel Intxausti	
2. Aitor Artola	
1. Amaia Ezkurdia	
2. Aitziber Zabaleta	
<b>Kadeteak</b>	
1. Martin Etxeberria	
2. Mikel Oronoz	
<b>Juniorrak</b>	
1. Anjel Pelaez	
2. Luis Lasarte	

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** Ekainaren 1erako artisautila azoka ari dira prestatzen. Parte hartu nahi duenak materiala (egurra, zumea, saskiak, koadro, margolanak, eskualanak, larrua...) Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxera eraman dezala (943 654698).  
■ **Berastegi.** Basurde elkarteak XVI. Ibilaldi Neurtua antolatuta du maiatzaren 4rako, 07:00etan abiatuta, inguruko mendietan. Izen-ematea, Zelai tabernan, 630 806080 zenbakian, [basurde@komunikazioa.org](mailto:basurde@komunikazioa.org) helbidean edo irteeran. Sei ordu eta erditik 8 ordu irauren du.  
■ **Berastegi.** Aldeanueva de Ebroa (Errioxa) irteera antolatuta du Gaztainondo jubilatu elkarteak hilaren 24rako: upategia bisitatu, ardo dastaketa, hamaiketako, eli-

za, bazkaria Venezia jatetxean... Izen-ematea, elkartean.  
■ **Ibarra.** Udal batzarra 18:00etan udal batzar aretoan. Haurreskolaren gaia jorratuko da, besteak beste.  
■ **Ibarra.** Ipuinekin jolasean ipuin kontaketa Lur Kortaren eskutik 17:30ean Benito Izagirre kultur etxean.  
■ **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskungo erromerian egingo den bazkari-rako txartelak, Bizi nahi elkartean 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).  
■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pensiodunen elkarteak irteera antolatuta du Atapuerca eta Burgosera maiatzaren 13rako. Izena eman nahi dutenek 30 euro (33 euro bazkide ez direnek) ordaindu beharko dute.  
■ **Tolosa.** Gizarte parte-hartzeari

buruzko prestakuntza ikastaroak doan Antonio Maria Labaien kultur etxean maiatzaren 13, 14 eta 15ean, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, Baketik (943 251005, [www.baketik.org](http://www.baketik.org), parte-hartu@baketik.org).  
■ **Tolosa.** Hilaren 28, 29 eta 30ean 10:00etatik 14:30era ziklomotoreen errebisioa egingo da Ferialekuan. Txanda eskatu behar da Udaltzainguan (943-675858).  
■ **Tolosa.** Miguel Soroa pilotaria zenari omenaldia: 19:30ean Jesuitetako kaperan meza, 21:00ean afaria Fronton jatetxean, afalondan kantua, txistulariak, bertsoak, soinua... Afarirako izen-ematea, Frontonen (943 65 29 41 zenbakian).  
■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pensiodunen elkarteak Saloura irteera antolatuta du ekainaren 1etik 15era

pentzio osoan. Izen-ematea, elkartean 395 eurotan (bazkide ez direnek 401 euro).  
■ **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartean (Araba etorbidea 5) edo [a.adiskideak@terra.es](mailto:a.adiskideak@terra.es) helbidean.  
■ **Tolosaldea.** HABEren Egonaldiak familia euskaldunetan egitasmorako familiak behar dira uztailean, abuztuan edo irailean. Hilabete bakoitzeko, familiari 650 euro ordainduko dira. Informazio gehiago euskaraz zerbitzuetan, 943 474447 (Urrats euskaltegia) telefonoan.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Miren Gonzalez Goikoeitxe margolari tolosarraren *Zabonruntziak* erakusketa Leidor areto-

an, Naturaldia jardunaldien barruan.  
■ **Tolosa.** Encarna Mejia margolari alegitiarraren olio-pinturak ikusgai daude Itae tabernan, hilabete bukaerara arte.  
■ **Tolosa.** Angel Arbe artistaren *Biogeometriak* lanen erakusketa Aranburu Jauregian.  
■ **Tolosa.** *Marierpuru* ipuinari buruzko erakusketa Haur Liburutegian, ikastetxeetan egindako marrazkiak.  
**» GUARDIAKO FARMAZIAK**  
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.  
**HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Miriam.** Gaur 13 urte. Muxu handi bat zure lehengusuen partetik. Muuaaaa!

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

antzezlanerako  
**2 sarrera pare** zozketan  
deitu eta eskuratu

**Antigona**

Vaiven ekoiztetxeak

Larunbata  
apirilak 26 • 20:30ean  
Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

**1. ÑAÑARRI RALLY ESPRINTA**  
ALEGIA - ORENDAIN - ABALTZISKETA - AMEZKETA

**2 sarrera pare** zozketan

deitu eta eskuratu

Larunbata  
apirilak 26



Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**